



Etxean eta
etxetik kanpo
lan egin duten
emakumeak

Emakumeen Nazioarte-ko Eguna ospatu zen astelehenean, martxoaren 8an, eta herriko emakumeek berdintasunaren alde hainbat ekimenen burutu zituzten. Etxean lan egiteaz gain kanpoan negozio baten ardura izan duten bi emakumerekin mintzatu gara gu. /4-5



Bigarren aldia da aurten herria elurtuta ikusten dugula.

Elurra berriro ere

Igande gauean ederki bota zuen, errepideak izan ezik, gainontzeko guztia elurtuta zegoen

Elurra iragarria zegoen astelehenerako, eta horrela izan zen, astelehenean goizean jaiki eta gure herria eta inguruko mendiak zuri zeuden. Igande gauean elurra egin eta goizean, zentimetro batzuetako geruza zegoen kalean. Errepidean ez zuen arazorik sortu. Etxeko txikien gozamerako eskolarako bidea elur bolak botatzen egin zuten, ez ordea buelta, goizean zehar elur gehiena urtu egin baitzen. Gau aldera ez zen elurtearen arrastorik geratzen herrian. •

Lan istripuen salaketa egin zuten LABek

Astearte arratsaldean, LAB sindikatuak deituta, hainbat herritar bildu ziren Lasarte-Oriako udaletxearen aurrean. *Lan istripurik ez, erantzunik gabe!* lelopeko pankartarekin, lan istripuak salatu zituen sindikatuak eta enpresek euren gan erantzukizunik ez hartzea ere bai. Salaketa lehengo ostiralean, martxoaren 5ean, Lasarte-Oriako herritar baten heriotzari erantzuteko modua izan zen. Izan ere, lasarteoriarra Alegian lanean ari zela horma batetik jausi eta ospitalean hil zen. •



POLITIKA /3

Alkarte berriarekin izango diren kargu aldaketak ezagutu ziren udal plenoan

KIROLA/6

Kick Boxing borrokak Michelingo frontoian larunbat arratsaldean

Guk, La Salle Berrozpe,
eta Zuk?

Ate Irekiak - Batxilergoa
Martxoak 16, 16:30 - 19:30

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

Neure kabuz



Kalkulatutako kasualitatea

Dagoeneko Ana Urchueguia ez da Lasarte-Oriako alkate. Alkate "berria" du herriak: Jesus M. Zaballos. Izatez ezberdinak dira jakina, baina nik denbora beharko nuke izanean ezberdinak izango diren esateko eta printzipioz oso lerro markatua duela esango nuke alkate "berriak". Ikusiko da.

Azkar zabaldu zen berria, azken egunotan batean edo bestean; bata edo bestearen elkarrizketa ugariak topatu naiz.

Hasieran berriak harritu ninduen. Ez nuen uste posible zitekeenik, baina pittin bat pentsatu ondoren eta elkarrizketa ezberdinak irakurrita ondorio hauetara iritsi naiz: Ez da kasualitatea. Politikan ezer gutxi da kasualitatez egina. Momentua eta egoera oso neurtuak daudela uste dut nik.

Erabakia aspaldi hartuta bazegoen eta ezin esan bazitekeen; moduak eta momentuak ere neurtuak eta adostuak zeudela uste dut.

Gehiago osoa ez duen momentuan uzten du kargua. Egitekoak eta erabaki ahalmenak mugatuagoak zaituen eta dagoeneko Anaren aginte estiloa praktikara eramatea ezinezkoa zen. Hauteskundeak berehala datoz eta hautagaia ezagutzera eman nahi izan dute.

Somotoren auzian ardurak baino gehiago emandako irudiak arduratzen die, hauek ukatu eta ordezkatu ezinak direlako.

Nik ez zaitut alkate ezinbesteko bezela oroituko. Ez zaizkit oroitzen onak gailentzen. Alkate bezala funtzio batzuk zenituen, kargua hartzean ardura hauek zureganatu zenituenaren baitan zuk aitortzen duzun enpresa horretan lan egin duzu, ez duzu niretzat merituz gehigarri.

Ainara Lasa

Zorion-agurrak



Cayetano

Zorionak! Afaria zure kontu eta ondo pasa. Familiaren partetik.



Eñaut

Zorionak! Laztana sei muxu txokolatezko, Eneritz eta gurasoen partez




Ekaitz

Zorionak maitia zure lehenengo urtebetzean. Muxu handi bat Eiderren partetik



Iugatz

Zorionak potti zure I. urtebetetzean. Muxu potoloa aitaxo, amatxo eta familiaren partetik.



Naia eta Noa

Zorionak bikote! Familiaren partetik muxu goxo asko.



Aitor

Zorionak hi! Ze uste huan, ez genuela jarriko? Potea (edo poteak...) hire kontu!



Aimar

Zorionak! Txokolatezko muxu handi bat gurasaok, aitona-amonak eta familiaren partetik.



Eneritz

Zorionak politta, dagoeneko 3 urte!! Muxu pila bat aitaxo, amatxo eta Nerearen partetik

Guardiak

Ostirala, 12

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 13

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 14

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 15

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astearte, 16

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 17

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 18

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Ostirala, 19

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 20

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 21

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 22

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astearte, 23

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 24

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 25

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisua salgai Iruran. 3 gela, kumuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Bero-gailua eta armairu enpotratuak ditu. Tel.: 695 785 153.

• Salgai dago Usurbilen etxe familiar bat, polikiroldegia ondoan. Harremanetarako zenbakia, 605 708 490. Mari Carmen

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. Dena berria, hiru balkoi eta eguzkitsua. Tel.: 686 969 112

• Logela bat alokatzen da, sukaldeko eskubidearekin. Lasarte-Oriako erdialdean. Tel.: 677 302010, Jokin.

• Etxe bat saltzen da Alesancon (Escarayren ondoan) lorategiarekin, igerileku eta gune komunak. Telefonoa 676 910 566.

Salerosketak

• Yamaha Mayesti motorra saltzen da. 150 zentrimetro kubiko ditu, garajea gordetakoak, kutxa eta Pitoi giltzarrapoarekin. Prezioa

1300 euro, negoziagarria. Telefonoa: 645 635 125.

• 2002ko Suzuki RM-125 c.c. motorra saltzen da. Ez erabiltzeagatik. Garajea gordetakoak. Telefonoa: 618 238 451.

Lan-eskaintzak

• Zerbitzaria behar da taberna batean lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 666 461 595.

Lan-eskariak

• 21 urteko neska euskaldun esperientziaduna astean zehar goizez haurrak zaintzeko edo klase partikularrak emateko prest egongo litzateke, kontaktuan jarri nahi izanez gero telefonoa honetara deitu: 618019309.

• Pertsona arduratsua eta klinika laguntzaile, geriatria eta psikologia esperientziadun pertsona adin-erdiak zainduko litzuzke. 680 983 527- Karlos.

• Etxeko lanak edo garbitasun lanetarako neska eskaintzen da. Bere zerbitzuak jasotzeko interesa duenak, 650 890 354 telefono zenbakira deitu dezala.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4, 20160 Lasarte-Oria

* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

Jaiotzak



Iker Domin-guez Dávila, martxoaren 5ean
Maialen Posada Sanz, martxoaren 3an

Heriotzak



Jesús Castro Izquierdo, martxoaren 5ean 84 urte zituela.
José Gil Corriols, martxoaren 5ean 61 urte zituela.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdiak

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua ... 943 376184
Kiroldetza ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal eskualtegia ... 943361621
Obra eta zerbitzuak ... 943 376180

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Alkate berria eta kargu aldaketak

Oposizioak aurkeztutako mozioak atzera bota ziren alkatearen kalitatezko bozkarengatik

Ana Urchueguiak alkatetza utzi eta Jesus Zaballosek kargua hartzearen ondorioz, batzorde informatiboetako lehendakariak, alkateordeak eta Gobernu-Batzar Lokaleko kideak aldatu dira egun hauetan. Atzo burutu zen Udaltzarreran aldaketa hauen guztiak berri eman zuten Udaltzarreran. Beheko koadroan ikusi daitezke aldaketak.

Era berean, PSE-EE-PSOE taldeak batzordeetako kideen aldaketari buruzko azalpena eman zuten.

Honetaz gain, Añarbeko Urak Mankomunitateko Udaltzaren ordezkari aldaketa bozkatu zen. PSOEren bozkei esker, legealdia bukatu arte Jesus M^a Zaballos eta Martin Moreno dira ordezkariak.

H1, EB, LOHP eta ezker abertzalea abesentitu egin ziren eta EAJak aurka bozkatu zuen. "Inkoherentzia handia iruditzen zaigu San Markoseko Mankomunitateko ordezkari Ricardo Ortega izatea, gobernu akordioa hautsi zenez." Jesus Zaballos alkateak, Ricardo mantentzea Gobernu taldearen erabakia zela adierazi zuen eta bere lan ongi betetzen duela, gainera.

Aurrekontuak

Honetaz gain, EAJ-PNVk aurkeztutako mozioa aztertu zen, honetan 2010. urteko aurrekontuak aurkezteko premiazko eskea egiten dio Udaltzarrerari eta Aurrekontu batzorde berezia biltzekoa.

EB eta LOHP-k ere aurrekontuaren beharra azpimarratu zuten. LOHP ordezkariaren hitzetan, "Udaleko sailek bestela ezin dute lan egin."

PSOEak aurka bozkatzeko asmoa aurkeztu zuen. Iñaki Mugika bozeramaileak azaldu zuenez, ez da beharrezkoa aurrekontuak aurkeztea. Gainera, sarrera lokalak mantendu direla eta besteei dagokionez, egun batetik batera kopurua aldatzen doala azpimarratu zuen, "horrela ezin da aurrekontu bat egin."

Era berean, oposizioari aurrekontu bat egiteko proposamena egin zion eta bestela, zentsura mozioa aurkeztu dezatela. Birritan bozkatu eta bietan zortzina berdinketa izan zen, PPko zinegotzia ez zelako batzarreran izan eta



Jesus Mari Zaballosen lehenengo Udaltzarrak izan zen alkate bezala.

Kargu aldaketak

BATZORDE LEHENDAKARIEN ALDAKETA

Ekonomia, Ogasuna, Ondarea eta Kontu-etako berezia:

Jesus M^a Zaballos

Gazteria eta Festak: Marisa Zubiri

Kirolak: Fernando Escoriaza

ALKATEORDEAK

5. alkate orde: Ana M^a Urchuegia

GOBERNU BATZAR LOKALEKO KIDEAK

Iñaki Mugika, Ione Altuna, Lourdes Acevedo, Martin Moreno eta Ana M^a Urchuegia

PSOEak alkatearen kalitate bozkari esker atzera bota zuten mozioa.

Ezker abertzaleko kideek hitza hartu eta adierazi zuten kezka sortu zaiela alkateak TXINTXARRI aldirikariari eskainitako elkarrizketa irakurri eta gero. "kontu hartzailearekin orain bildu behar bazara 2009ko kontuak aztertzeko, zer egin da aurretik? Ana Urchueguiak ez al du bere lana egin alkatetzan zegoela?"

Alkate berriak kontu hartzaileak 2009ko kontuak ostira-lean itxiko dituela aipatu zuen eta horren ondoren, guztiak aztertu eta kreditu eta inbertsio planen berri emango duela azaldu zuen. Beraz, kontuak itxi baino lehen lanik egin ezin zela argudiatu eta Urchuegia andrea defenditu zuen.

Kontu ikuskapena

Era berean, Ezker Batuak-Berdeak Udaltzaren kooperaziorako emandako laguntzei buruz Herri kontuen Euskal Epitegiak kontu-ikuskapen sakon bat egingeko eskatu zuen.

"Era honetara, egun dagoen koadroa itxiko genuke, Somoton egiten ari diren kontu hartzea eta hemen hasi berri den Laguntzen Batzar berezia," adierazi zuen Ricardo Ortegak.

Era honetara, irakurketa politikoa ekidinduz zirela adierazi zuen EBko zinegotziak.

Mozioa ez zen aurrera aterala alkatearen kalitate bozkarengatik. PSOE bozeramaileak azaldu zuenez, "Batzordearen emaitzek irakurketa politikoa izango dute, asmo politikoekin sortu zelako." Horretaz gain, "gure sententzia da egindako guztiak ez duela ezertarako balio. Gaia luzatu nahi da etekin politikoa lortu eta gure lana zapuzteko" aipatu zuen.

Ondoren, alkatetzako gaiak azaldu zituen Jesus Zaballosek. Honela, Etxebizitza Babestuen Erregistroa astelehenean irekiko dela jakin arazi zuen.

Era berean, Amakumearen Nazioarteko egunean EUDEL-en idazkiarekin bat egin zela eta udaltzarrerarako araudia egitea eskatu duela ere azaldu zuen. •

KINIELA

547.607 euroko saria Arkupe tabernan

Lasarteoriatar batek aurreko asteburuko kinielan hamabost partiden emaitzak asmatu zituen zutabe batean eta hamalau bestean. Horri esker, 547.607 euroko saria eskuratu zuen.

Apostua Largoenea kalean dagoen Arkupe tabernan egin zen eta bertako jabea, Javier Gomez oso pozik agertu zen saria bere tabernan suertatzeagatik.

Adierazi zigunez, sariaren onuraduna ohiko bezeroa da eta zortzi zutabeetako kiniela soilik egiten du, hau da, lau euro jokatzen dituela.

Honetaz gain, lehenengo aldia du kinielan honelako saria ematen duena, hala ere, "beste jokoetan ere saria handiak" eman dituela aipatu digu. •

ANTZERKIA

Bidai berezia Uhartetara

Markelñe antzerki taldeak Jose Saramago idazle portugaldararen *Uhartetara* ipuin laburrean oinarritutako lana antzeztuko du bihar arratsaldeko 18:00etan Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan.

Ikuskizuna haurrei zuzendurik dagoen arren, helduak ere harrapatzea du helburu. Izan ere, antzerki taldearen proposamenak ipuinaren jatorrizko testu poetiko-filosofikoa garatzen du eta amets egiteko eskubide ukazina eta gure etorkizuna garatzeko gaitasuna dira ipuin honek jorratzen dituen gai nagusiak.

Obra hau, emakume batek erreginari uhartetara ezezaguna aurkitzeko barku bat eskatzen dionean hasten da. Erreginak irla guztiak mapetan daudela erantzuten dio, baina neskak bereari eutsi eta erreginak barkua ematen dio. Abentura pila biziko ditu *Uhartetara* ezezagunaren bila.

Arratsalde paregabea igaro, bidai honetan murgildu eta istorioaz gozatzeko aukera dago, beraz, bihar. Sarrerak 3, 15 euro balio ditu. •



Arg.: Luis Antonio Baraja

LURREKO TELEBISTA DIGITALA

Informazio puntu mugikorra Brigitarretan

Asteazkenean, Lurreko Telebista Digitalari buruzko informazio puntu mugikorra iritsi zen herrira, Brigitarren komentu ondora.

Informazio puntu honetan igorpen analogikoen etetearen berri eman zitzaion herritarrei. Era berean, modu errazean teknologia berriari nola egokitu azaldu, TDTak eskaintzen dituen abantailak ezagutu eta beren dudak argitu zituzten puntu mugikorren hurbildu ziren lasarteoriatarrek.

Hala ere, gaiari buruzko edozein zalantza izanez gero, 901 201 004 telefonora deitu edo www.televisiondigital.es web orrialdean aurkitu daitezke erantzunak.

Ekimen hau TDTako Trantsiziorako Plan Nazionalaren baitan dago eta Telekomunikazioen eta Informaziorako Gizartearen Estatuko Idazkaritzak aurrera daraman komunikazio akzioetako bat da. •



Etxean eta etxetik kanpo lanean


Maribi Amundarain eta Inaxi Etxeberria emakumeek etxeko lanaz gain negozio baten ardura izan zuten ■ Garai haietan emakumezko gutxi aritzen zen etxetik kanpo lanean

Gizon eta emakumeen arteko benetakiko berdintasunaren alde borroka eta aldarri egiteko urteko 365 egunak aproposak badira ere, egia da, martxoaren 8aren inguruan antolatzen direla ikitaldi gehienak. Berdintasuna lortzeko bidea zeharkatzen ari garen bitartean, ezin da ahalatu emakumeak ez aitortsi ez botorik ez zeulatan garrantzi bizi izan zirenean jasan behar izan zituztenaz. Duela 40 urte etxeaz aparte kanpoan ere lan egiten zuten emakume horien bizitza ezagutzen saiatu gara. Maribi Amundarain eta Inaxi Etxeberriarekin bildi gara horretarako.

ISSAHO MORENO

Emakumeen 89. Enakuntza Langilearen Nazioarteko Eguna

1911tan ospatu zen lehen aldiz ziko aldiriz, hala ere, gure herritan behintzat badirudi askoz beranduzago 365 urte aldarrakapenak. Garai horietan, hasieran oso emakume gutxi ziren etxean lan egiteaz gain kanpoan ere aritzen zirenak. Baina egon bazeuden, eta ez zuten inolaz ere arduratu inon pila lan egiteko gero, etxean ere aritu behar ziren, garai horietan gizonezkoak fabrikari lan egiteaz gain ez baituzten lan egiten, salbuespenak salbuespen. Lo egiteko denbora behar izan zuten emakume batak mugatzen bazuten hauen.



Inaxi Etxeberria ederreki bizi da orain, berarentzako denbora eduki.



Maribi Amundarain emakumeen egoera aldatzeko garrantzen zain bizi izan da.

Oraindik bere hiru emak txikiak zirenez, ez ziren eskolara joaten, eta arandegi inguruan jolastan zirenen. Arandegiari bertan aritzen zuten orduan sukalde txiki bat zuten eta han bazkalatzen zuten. Bete jarraitzen ahal zuten, bere jardunaldia amaituta, 9ak aldera etxera joan. "Janetik alera eta lanera bertiz, oso garai zozgorrak izan ziren, hura pasa egin behar da".

Urteak aurrera joan abala, bere senar Patsi Etxeberriak Luzuriaga enpresa utzi eta arandegiaren hasi zuten. Horrek laguntza eman zien "guzuz" aldatu egin ziren zerekin, baina lana eta zerretan pasa niten urte horiek izateko eta abatezinez izan ziren".

Emakume izateko zama zena Balazoren eta zena erloteen zuten emakumeek garai horietan. Maribi Amundarain oso gazte ezkondu zen eta lehen urteak etxean pasa bazituen ere, "arandegiko ireri eta nite mundua grabat aldatu egin zen".

Hiru seme eta hiru iloba bere gain edukitzeaz gain, negozio baten buru bilakatu zuten. Goizeko 3:30tan enpresan zuten zena "arandegiko lana, erretarduak ere gure gain hartu

ikusi eta sentitu egin behar da sineseko" azaltzen du inaxik. "Jan ez gainezka zeunden eta gauzak ondo egitea zaila zela" Maribiren hitzetan, "gu ibili ginen moduan norbait gauek gaur egun hasiko balitz erotu egingo lituzke" gaineratzen du inaxik.

Niretzako denborarik bai?

Egitimbar eta betebeharragarri izanik, emakumearen-tzat berarentzat lituzkeen denborarik ez zen geratzen: "eguneko ordu guztiak familian zirela, baina niretzat ezarri ere ez, ez zenuen ezta plan-tesatu ere egiten" adierazten du Maribik.

Egun zehatzak zituzten emakumeek abstraktiko jale-tenen emake pitiu bat, egin gaita jostan ginen nonbaitera, jakin-iztira prestatu eta mendi-dera joaten ginen, hurrek ziren gure aisaldi bakarrak eta oso noizbainetikakoak" azaltzen digu inaxik.

Emakek hazi ahalaz gauzak zertabait aldatzen hasten zirenen, zuzentzako denbora iristen zirenean "hala ere ez ginen gaur egun bezala tabernetan ibiltzen, mila gauza gertu behar zituzten. Emakumeak euren proiektuak gehiago beagratzen zuten, bizitzak disfrutatzeari "beharrezko zena aldatzea bai iritea, bizitzako denbora behar du emakumeak" azaltzen du Maribik.

Berdintasunaren bila

Garaiak aldatu egin dira, egun emate gutxi izaten dituzte bikoitx lehen, ondoen zituzten, ezjakinak ginen" dio inaxik. Egun, emakumeak euren proiektuak gehiago beagratzen dituzte, bizitzak disfrutatzeari "beharrezko zena aldatzea bai iritea, bizitzako denbora behar du emakumeak" azaltzen du Maribik.

Berdintasanun bila

Lehen lana besterik ez zuten buruan emakumeak izango euren betebeharrak du, gure garaitan laguntzen du, ordu garrantziak izaten saiatzen zirenak, baina nik usie gara horietan bakarrenetan "hala zela" esplikatzeko digu inaxik.

Gure garrantziak ez genuen tabernan egoteko ezta astirik ere ohoturarik ere

Egia da denbora gutxi zutela eta denbora gehiago behar zela arantzean, eta ordu horietan emakumeak bizi izan zirenean, "arandegiko ireri eta nite mundua grabat aldatu egin zen".

Emakek aurrera ateraz

Emakumeek aurrera aterazten zirenean, "arandegiko ireri eta nite mundua grabat aldatu egin zen".

Hiru seme eta hiru iloba bere gain edukitzeaz gain, negozio baten buru bilakatu zuten. Goizeko 3:30tan enpresan zuten zena "arandegiko lana, erretarduak ere gure gain hartu

Table with 2 columns: Name and Address. Includes '2010eko Lilatoia' and 'Betebeharrak' sections.



Astelehen goizean murala egin zuten emakumeak Zentro Zibikoan berdintasuna eskatzeko. Martxoaren 8an Jesus Zabaltas alkatetza berria ere joan zen bitan.

100 urtez berdintasanun bila

Maturatzen ari zirenen, biak intolerantzia muturak direla ikusi, "berdintasuna da helburua eta ez feminismoa, emakumea ez da gizonaren gainean jartu behar".

Murala

Emakumeen egunean, gogoratzen duem berria, zera ez erakazteko antolatzen zuten. Zentro Zibikoan elkarrekin ziren herriko emakume asko egunkarietan agertzen diren lan eskaintzei eta inagari erantzuten zuten gogortzen zirenak.

Bizterketak

Gizarteak, gizon eta emakumeen arteko berdintasun gutxi ikusten ditugu oraindik ere. Askotan, diskriminazioak badira, gizonak irabazten dituzte emakumeak baino gehiago, eta hori ez da onartzen.

Berdintasuna da helburua, eta ez feminismoa

Filma ikusi eta gero, emakumeak aurrera ateratzen zirenean, "arandegiko ireri eta nite mundua grabat aldatu egin zen".

Emakumeen arteko berdintasun gutxi ikusten ditugu oraindik ere. Askotan, diskriminazioak badira, gizonak irabazten dituzte emakumeak baino gehiago, eta hori ez da onartzen.

Emakumeen arteko berdintasun gutxi ikusten ditugu oraindik ere. Askotan, diskriminazioak badira, gizonak irabazten dituzte emakumeak baino gehiago, eta hori ez da onartzen.

Advertisement for SAIZAR beer. Features a bottle of beer and the text 'SAIZAR Betiko Sagardoa'. Includes contact information for SAIZAR beer.

Kiroletako oharrak

6 Nazioak Errugbyko porra

Beltzak Errugby taldeak 6 Nazioak lehiaketako porra antolatuta du. Saillkapeneko 6 postuak asmatzen dituztenez artean, Jalai tabernan bi pertsonentzako afaria eta Zigako landa-etxean 2 pertsonentzako astruburu pasa zozketatuko dira.

4. jardunaldiara arte, hau da, martxoaren 13ra arte dago porra egitea.

Aldatzekua, Txema taberna, Gure etxea, Insausti, Ilargi, Jalgi, Txanpa, Xirimiri eta Uda-berri tabernetan porrako txartelak eskuratagarri daude.

XXII. Squash txapelketa soziala

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak hogeita bigarren Squash txapelketa soziala antolatuta du. Txapelketa hau 2010eko martxoaren 22n hasiko da. Parte hartzeko asmoa dutenek martxoaren 12a arteko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Parte hartzeko gutxienezko adina 14 urte direla, ohartarazten dute antolatzaileek. Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurotako da.

Kick boxing borroka Michelinen

■ Larunbatean 17:00etan hasiko da ikuskizuna ■ Herriko gazteek borrokatuko dute sei lehiatan ■ Mikel Rodriguez 2007ko Europako txapeldunak ere bai

Donostiako Kuraia Fight klubak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, kick boxing eta K1eko borrokaldiak izango dira larunbatean 17:00etatik aurrera Michelingo frontoian

Borja Mendioroz eta Manu Carrasco, Kuraia Fight Klubeko ordezkariek eta Jesus Mari Zaballos alkateak, eman zuten borrokaldien berri, atzo goizean egin zuten prentsaurrekoan. "Lehenengo aldia da Lasarte-Orian egiten dena eta ez dakigu zein harrera izango duen," aipatu zuten Kuraia Fight klubeko arduradunek.

Herriko gazteak

Jesus Zaballos alkateak aipatu zuenez, "kirol minoritarioei bultzada eta, era berean, Lasarte-Oriako gazteei egiten dutena erakusteko aukera eman nahi genien."

"Lasarte-Oriako sei gaztek parte hartuko dute ikuskizunearn eta herrikoiei ikasitakoak erakutsi nahi diete," adierazi zuten Borja Mendiorozek.

Kick boxing eta K1

Kuraia Fight klubeko kideak



Udaleko eta Kuraia Fight klubeko ordezkariek ekitaldiko aurkezpenearan.

azaldu zituen Kick boxing eta K1 borroken arteko ezberdintasunak. "King Boxing-ean eskuakin boxeoko kolpeak eta hankekin borroka-arteetakoak, hala nola, taekwondo, karate edo kenpo kolpeak ematen dira; K1en, horretaz gain belanarekin ere kolpeak eman daitezke," adierazi zuten Mendiorozek.

Gainera, larunbateko ikus-

kizunearn, kick boxing motako borrokaldietan, Lasarte-Oriako gazteek babesa izango dutela aipatu zuen, "amateurrak dira eta". K1eko borrokaldian, aldiz, ez dute babesik izango, eskularruak soilik.

Borroka

Kick boxing-eko borroka sei izango dira eta herriko sei gaztek hartuko du parte.

Borrokaldi bakoitzean lehenengo da herrikoa eta bigarrena kanpokoak:

Iban Valverde-Kevin del Rio, Imanol Aizpurua-Alex Anasagasti, Iñigo Garcia-Sergio Lestares, Aitor Iturrarte -Carlos Gorospe, Eneko Hernandez-Josu Urrutia Erik Valverde *Chino-Oscar Curro*.

Borroka onak ikusteko aukera dagoela aurreratu dute antolatzaileek.

Bestalde, K1eko borrokaldian, arratsaldeko azkenean, Mikel Rodriguez 2007ko Europako txapeldunak Jon Ibaseta izango du aurrez aurre.

Sarrerak

Ikuskizuneko sarreraren prezioa harmailetan 10 euro eta eserlekuan 15 eurokoa da.

Hauk eskuratzeko aukera egongo da egunean bertan, frontoiko leihatilan; aurretik, Quinto Pino, Centro de Artes Marciales de Anoeta edota Pio Baroja kiroldegian eskuratu daitezke.

Era berean, antolatzaileek jakinarazten dute, frontoiko sarrera atletismo pistatik egingo dela, hau da, ibai aldetik. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 13

10:30etan, Ostadar-Internacional (Partehartze infantil, kopa) Michelinen.

12:00etan, Ostadar-Hondarribia (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.

12:30etan, Zarautz-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II, kopa) Asti-txiki, Zarautzen.

12:30etan, Kostkas M.B.-Ostadar (Infantil txikiak, txapeladunen fasea) Matigoxotegi, Donostian.

15:30etan, Ostadar-Ordizia (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

17:15etan, Ostadar-Elgoibar (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.

17:30etan, Allerru-Ostadar (Erregional Goren) Plazeta, Lezon.

Igandea 14

10:00etan, Tolosa-Ostadar (Alebinak, txapeladunen fasea) Usabal, Tolosan.

10:30etan, Texas Lasartearra-Danena (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

12:00etan, Arrasate-Ostadar (I. Kadetena, igoera fasea) Mojategi, Arrasaten.

12:30etan, Intxurre-Texas Lasar-

tearra (I. Jubenila, kopa) Elorri, Alegin.

Asteazkena 17

18:15etan, Antiguoko-Ostadar (Alebinak, txapeladunen fasea) Berio, Donostian.

FUTBOL 7

Larunbata 13

21:00etan, Ederra-Spartak de Obelix (III. maila) Don Bosco, Pasaian.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 13

18:00etan, Orioko Taberna-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Karela kiroldegia, Orion.

18:00etan, Garetxe Lazkao-ISU Leihok (Gipuzkoako Liga, I. maila) J.M. Barandiaran kiroldegia, Lazkao.

HERRIKO TXAPELKETA Kurtsiban ziklogenesiagatik atzeratuko partidak

Ostirala 5

20:30etan, Obelix-Naiban

Larunbata 6

09:15etan, Obelix-Mingallon

10:15etan, Tragoxka-Lekuona

Mena

11:15etan, Goiz Argi-Mingallon

12:15etan, Epel-Biyona

14:00etan, IOB H.K.-Ilargi

15:00etan, Buenetxea-Siglo XX

16:00etan, Oriakris-Okela

17:00etan, Izarra-Viña del Mar

18:00etan, Tragoxka Naiban

Igandea 7

10:00etan, ISU Leihok-Morrison

11:00etan, Izkiña-IOB H.K.

SASKIBALOA

Ostirala 12

20:00etan, Allerru-Jalai (Gizonezko seniorra) Lezon.

JUDO

Larunbata 13

11:00etan, LOKEko infantilak taldekako Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dute, Zarautzen.

Goiza osoa, LOKEko judokak Kadete mailako Espainiako Txapelketan parte hartuko dute, Murztian. Egun osoa, LOKEko Iñaki Elizaldek Ama Guadalupeko taldearekin eta Beñat Elizaldek Judo San Sebastian taldearekin Espainiako klubetan parte hartuko dute, Madril.

ATLETISMO

Larunbata 13

10:30etan, Landaberriko nesken

alebin taldeak eremuko eskolarteko txapelketan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan.

16:15etan, LOKEko Irati Larraraga atletak jubenil mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du jauzi hirukoitzeko proban, Oviedon.

Igandea 14

Goiz osoan, Eneko Castroren omenezko XIII. Euskal krosa egingo da, Atsobakarreko parkean.

PILOTA

Ostirala 12

Udaberri txapelketa-finalaurrekoa 19:00etan, Eskoriatza-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Eskoriatzan.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 13

16:00etan, Bazpi Txirrindularitza taldeko alebin eta infantilek Usurbilgo Sarian parte hartuko dute, Zumartegi industrialdea, Usurbilen.

Igandea 14

09:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Lizartzara irteera egingo du.

PALA

GOMAZKO PILOTA XVI. TXAPELKETA Michelingo pilotalekuan

Igandea 14

09:00etan, I. Lizaso eta J. Alzibar-O. Lazkano eta I. Arluziaga

10:00etan, B. Odriozola eta X. Etxezarreta-I. Huegun eta H. Urdanpilleta

10:45etan, J. Bardaji eta J. Presa-J. Iparragirre eta K. Rozas

11:30etan, X. Artega eta J. Arte-txe-A. Munduate eta B. Pagaoga

BOLA-JOKOA

Igandea 14

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldea Lehendakari txapelketan parte hartuko du, Mutiloan

ESKOLA-KIROLA

Larunbata 13

09:30etik 11:00etara, Benjamin mailako, hau da LH3 eta LH4ko Errugbyko topaketa, kiroldegian.

10:00etatik 11:15era, LH2 mailako Kirol hastapeneko topaketa, Michelingo frontoian.

11:30etik 12:45era, LHI mailako Kirol hastapeneko topaketa, Michelingo frontoian.

Egunero

Erakusketa

Alvaro Ledesmanen ESPEKTRO-
AK izeneko margoen erakus-
keta. Jalgin, egun osoan.

Ostirala, 12

Bakarrizketa

KIKE BIGURIK antzezleak baka-
rrizketak eskainiko du Gazte-
ria sailak eta Xpression kultur
elkartek antolatzen dituzten
Gazteentzako emanaldietan.
Musikaz gain, tarteka kafe
antzerkia eskainiko dute. Kul-
turretzeko kafetegian,
20:00etan, GAZTELANIAZ.

Larunbata, 13

Antzerkia

UHARTE EZEZAGUNA haurrentza-
ko antzezlan Markeliñe tal-
dearen eskutik. Sarrera, 3, 15
euro. Kulturetxean, 18:00etan.

Igandea, 14

Zinea

PERCY JACKSON Y EL LADRÓN DEL
RAYO haurrentzako filma.
Sarrera, 3, 15 euro. Kulture-
txean, 17:00etan.

Asteazkena, 17

Hitzaldia

NOLA AURRE HARTU GURE SEME-
ALABEKIN ETORKIZUNEAN IZAN
DITZAKEGUN ARAZOEI buruz
hitzaldia eskainiko du Pilar
Seminariok Udaltzen Sanita-
teko Departametuak antola-
tuta. Kulturetxean, 18:00etan.

Ostirala, 19

Kontzertua

AUPA QUARTET, Bartzelonako
soka laukotearen emanaldia.
Jalgin, 23:00etan.



Kontratenore frantziarra
Musika Topaketan

ROBERT EXPERT KONTRATENOREAREN emanaldia Danok Kideren
V. Musika Topaketen barruan. Expertekin batera Alberto
Saez Puente pianoan eta Ainhoa Merzero sopranoa ere ari-
tuko dira. Operak, pasioak, abesti barrokoak, zein XVI eta
XVII. mendeak eskaini ditu abeslari frantsesak mundu
osoko antzokietan.

GAUR, HILAREN 12AN
BRIGITATARREN KOMENTUAN 19:30EAN

Astelehena, 22

Erakusketa

Moviéndonos por el agua era-
kusketa ikusgai. Manuel
Lekuona kulturetxean,
17:00etan.

Osteguna, 25

Mahaingurua

KUDEATUZ egitasmoaren ingu-
ruko mahaingurua. Kulture-
txean, 18:30ean

Zinea

FROZEN RIVER filma Okendo
Zinema Taldearen eskutik.
Sarrera, 4, 15 euro. Kulture-
txean, 21:30ean, GAZTELANIAZ.

Ostirala, 26

Jam sesioa

THE BILLIE JEANS (funk, soul...) taldea izango da gonbidatu berezia martxoko Jam Sesio-
an. Jalgin, 23:00etatik aurrera.

Eskutitzak

Herri jakintza nahi dugu, eta jakintza herriarentzat nahi

Urte ugari pasa dira, Euskal Herriko hainbat etxeetan, andereñoek gure hizkuntza eta herri izaeraren transmisioa egiteko konpromisoa hartu zutenetik. Ezkutuan, klandestinitatean, baina egiten zuten lanaz harro, iraultza bat jarri zuten martxan.

Urte ugari igaro dira, iraultza horren lehen fruituak, ikastolak hain zuzen, sortzen hasi zirenetik. Gure hizkuntzaren transmisiorako garrantzia itzela izan bazuen, zer esanik ez pedagogia zein metodologia mailan suposatu zuten iraultza.

Baina Telesforo Monzonnek Ikastolen ereserkian goiko izenburuko hizkiak idatzi zituenetik euri asko egin du gurean eta gure bidea oztopatzen duten putzu asko utzi ditu. Honen adibide garbia dira Hezkuntza Lege arrotzak, Curriculum

inposatuak, euskalduntzen ez duten hizkuntza ereduak. Ezjakintasuna eskubide den lehenengo herrialdea gara munduan (euskara ez ikastea eskubide omen da). Azken garai haue-
tan ordea, euskal hezkuntza-
ren aurkako erasoa erabatekoa izaten ari da. Aurretik aipatutako putzu horiez gain, hor ditugu Celaá anderearen curriculum dekretu berria, testu liburutatik Euskal Herria hitza desagerrarazteko egiten ari diren ahaleginak edota gure kultur ondarearen transmisioan hain garrantzitsuak

diren eskola txiki zein landa eskolen desagerraraztearen bidean ematen ari diren pau-
soak (azken hauen adibide gisa da, hain gertu dugun, Zubietako eskolarena).

Baina eraso eta inposaketa guzti hauen aurrean gure herriak bizirik dirauela erakusten du behin eta berriz. Horren adibide garbiak dira eskolaren bidezko euskalduntzea aldarrikatzen duten mobilizazioak, hezkuntza eragile eta curriculum propio bat burutu izana, Euskal Herriko berezko unibertsitate propio bat eraikitzeko proiektua, etab.

Honexegatik, hezkuntza komunitatean bizi dugun egoera honek, beste iraultza bat behar du; erotik aldatu behar da. Euskal Herriko Hezkuntza sistema propio eta burujabe bat behar du. Hezkuntza komunitatetik, heritik eraikia eta herritarren hezkuntza beharrei erantzungo diena.

Horretarako beharrezkoa da indarrak biltzea, inposaketei EZ esatea eta Euskal Herriak bere hezkuntza behar duela aldarrikatzea!

Hitzordua badugu: datoren martxoaren 13an, Bilboko Arriagatik abiatuta, arratsaldeko 17:30ean burutuko den mobilizazioan.

Inposaketarik EZ! Euskal Herriak Bere Hezkuntza!

Iker Pontesta Auzmendi Irakaslea

Oharrak

Hirigintzako departamendu Ganbo kalean

Lasarte-Oriako udalak gogora arazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoe-
la Ganbo Kaleko 1. zenbakian. Kokaleku berri honetan egongo dira behin-behinean, harik eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte.

Aste Santuko Txokoak

Ttakuneko Aisia Sailak jakinarazi nahi du irekita duela Aste Santuko Txokotako matrikula egiteko epea. Txokotan 2001 eta 2007 urte bitartean jaiotakoak hartu dezakete parte eta izena emateko azken eguna martxoaren 24a da.

Informazio gehiago Ttakuneko bulegoan (Geltoki kalea 4, 943 371448) edo www.ttakun.com web atarian.

Marrazki eta pintura eskola

Lasarte-Oria Bizilagun Elkar-
teak jakinarazi nahi du, mar-
txoaren 19 eta 20an Kultur
Etxea itxita egongo denez, ez
dela marrazki eta pintura kla-
serik izango.

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kinto-
toen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek dauzkate jasota: argazki kamara, urrezko eskumuturre-

koa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Nokia markako mugikorra, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrezko belarritakoak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere zorroan.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-
beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete. Horietaoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Geltoki kaleko bizilagun talde baten kexa jaso dugu Okendo plazako lanak direla eta.

Astearte iluntzean (martxoaren 9an) udaltzainei deitu eta lana geratu zuten, Okendo plazako paretan botatzen ari baitziren eta ez zituzten neurri minimoenak ere hartu. Botatzen zuten bitartean hondakinei ez zieten urik bota eta hauts asko arrotu zuten. Udaltzainei deitu zieten bizilagunek eta lana geratu zuten neurriak hartu harte.

Bizilagunek ez dute obra gelditzerik nahi, lehen bailehen bukatu dezatela baizik, baina posible den kasuetan, neurriak hartu ditzatela eragin kaltegarriak gutxitzeko. Bizilagunak errespetatzeko eskatu dute.



Martxoaren bukaeran Tolosaldera

■ Amaraun Klubekoak Altzora doaz, Gazte Klubekoak, aldiz, Ikaztegieta
 ■ Denen gustuko jarduerak aukeran Ttakuneko Aisia Sailak antolatuta

Aste Santuko oporrak iristear daudela Ttakuneko aisia sailak irteera interesgarriak prestatu ditu etxeko txikienezako. 1998-2004 urteen artean jaiotako aisia izango dute, eta nola ez, lagunekin oporralditxo txiki batzuk igaro eta gozatzeko. Harremanak sustatzea da helburua, elkar bizitzan murgildu eta elkar ezagutu, baina ondo pasatzeko gogoei muzin egin gabe.

Itxaso MORENO

Aste Santuko oporrei hasiera ederra eman nahi diezula? 5-12 urte bitarte dituzula? Altxo edo ikaztegieta ezagutu nahi duzula? Orain duzu aukera paregabea. Ttakuneko Aisia Sailak 2002-2004 urteen artean jaiotakoentzat Altxon asteburu pasa prestatu du. Eta 1998-2001 urteen jaiotakoentzat Aste Gaztea Ikaztegieta, hiru egunetan zehar naturarekin kontaktuan egoteko aukera paregabea.

Plan erakargarria eta atsegina iruditzen zaizula? Lasai, oraindik garaiz zabilta eta. Txikienez martxoaren 24a arte izango dute izena emateko aukera, eta handienek, martxoaren 22a arte. Ttakunera deituz, Geltoki kaleko bulegotik pasatuz edota aisia@ttakun.com helbide elektronikoren bitartez egin daiteke izen ematea. Prezioa 15 eurokoa izango da bi taldeentzako, eta asteburuko otorduak zein lo egiteko tokia izango dute barne etxeko gaztetxoek.

Baldintza bakarra, txikienez kasuan Amaraun Klubeko kide izatea, eta handien artean, Gazte Klubeko partaide izatea. Eta Klub hauetako txartelekin batera, nola ez, ondo pasatzeko eta dibertitzeko gogoak izatea.

Altxo paraje naturala

Asteburuko irteera hauen helburu nagusia, elkarbizitza eta bizikidetzat sustatu eta bultzatzearekin batera, "euren heziketa prozesuan lagungarri izango den talde izaera lantzea" da, Ttakuneko Aisia Sai-

leko arduradunek adierazi digutenez. Gaztetxoaren heziketa prozesuan lagungarri diren jokabideak bultzatu nahi dituzte: "badakigu gaztetxoak direla eta askorentzat etxetik kanpo pasako duten lehenengo asteburu izango dela, baina gure heziketa proiektu honetan elkar bizitza honen sustapena garrantzitsua da" dio arduradunak.

2002 eta 2004 urteen artean jaiotakoentzat Altxo eza-gutzeko aukera izango dute martxoaren 27 eta 28an, larunbat eta igandean: "herri txiki bat bilatu genuen, naturarekin harremanetan egoteko aukera ematen ziguna" aipatu digu irteeraren arduradunak. Leku oso lasaia da Altxo, umeek esaterako frontoira joan nahi badute ez dute errepiderik zeharkatu beharrik izango, horrela "autonomia eta erabakitze gaitasuna martxan jar dezaten bilatuko dugu" gaineratzen du.

Autonomia landuz

Altxoko aterpetxean ez diete haurrei otordu guztiak prestatuko, sukaldaritza tailerrak antolatuko dituzte afaria, bazkaria eta gosaria prestatzeko. Arduradunaren iritziz, "beraien inplikazio eta parte hartzea nahi dugu, beti ere ume txikiak direla ahaztu gabe noski".

Umeentzako esperientzia polita proposatzen dute Ttakuneko aisialdi sailetik "oporrei ongi etorria emateko modu bikaina izan daitekeelakoan gaude" dio arduradunak. Mundu guztiak behar ditu oporrak "eta ekintza honen bitartez umei, oporrak bere lagun taldearekin pasatzeko aukera luzatzen zaie" gaineratzen du Ttakuneko ordezkariek.



Pasa den urtean ondo aski pasa zuten Zumaian, Zarautz eta Orion. Aurtengo esperientziaren parte izan nahi?

Umearen autonomia eta erabakitze gaitasuna lantzea dugu helburu nagusietako bat

Umeak monotoniatik ateratzeko aitzakia paregabea dute "eta euren bizipen eta esperientziak edukitzeko aukera ere bai".

26 kilometrotara

Lehenengo aldia da etxeko txiki-txikien Lasarte-Oriatik irteerara direla, orain arte gau pasak herrian bertan egin dituzte eta. Hala ere, Ttakuneko arduradunaren ustez, "gertu egongo gara" eta gurasoak lasai egon daitezke: "ziur gaude ondo pasako dutela, lagunen artean, gelakide edo auzokideen artean asteburu ederra pasako dute".

Ikaztegieta ezagutzen

Hirugarren urtez egingo du aurtun Gazte Klubak hiru egunetako irteera. Aurreko urteetako ibilbideetan, kostaldea eta mendia ezagutzeko aukera izan dute: "Dena den, beti kostaldea ibili gara eta aurtun esperientziari aldatzea pentsatu genuen" aipatzen du arduradunak.

Barrualdera joateko asmoa eta udalekuan ikaztegieta ume talde batekin sortu zen

Aurreko esperientzietatik ondorio politik eta balorazio positiboak ateratzen dira

harremana kontuan izanik, "herri hau ezagutzeko aukera iruditu zitzaigun" azaldu digu arduradunak.

Begiraleak ikaztegieta ezagutzera eta bertan "eskaintzen zitzaizkigun aukerei errepertzeratzen" joan ziren eta egokia iruditu zitzaizkien. Herri txikia den arren "aberatsa" da. Arduradunak erantsi digunez, "segur aski hiru egunekin motz gedituko gara uste dugu".

Aste gaztea martxan

Martxoaren 29, 30 eta 31 bitartean Gazte Klubeko bazkideek oporraldi paregabea egiteko aukera dute, Aste Gaztea.

Txikienez bezala "elkarbizitza sustatzea dugu helburu" adierazi du antolatzaileak. Herri barruko inguritik ateratzeko aukera eskaini nahi zaie eta "urtean zehar Gazte Kluba programan dabilzanen arteko harremanak sendotzea" gaineratzen du. Mendi ibilbideak, tailerrak, talde jolasak, aspertzeko denborarik ez dute izango oporraldi hauetan parte hartzen dutenek.

Gurasoekin oporretara joan baino lehen, bada lagunekin egun pare bat pasatzeko aukera

Esperientzia politik

Baikorrak dira Ttakuneko aisialdi sailean. Arduradunaren ustez, "ondorio politik ateratzen dira aurreko urteetan egindako irteeretatik". Etxetik kanpo bi gau igarotzen dituzte eta harreman politik sortzen dira.

Sekula honelako irteera batean parte hartu ez dutenei gonbitea luzatu nahi diete "monotoniatik ateratzeko eta lagunekin oporralditxo batzuk igarotzeko aukera bikaina da" adierazten du.

Ez galdu autobusa

Aste Santuko oporraldiak gurasoekin, kanpora joanda edo herria bertan geldituz, igaro nahi dituzten gaztetxoek ere bi eguneko lagunekin egoteko eta elkarren arteko harremana sendotzeko egokiera ederra dute. Aukera paregabea, oporralditxo lagunekin pasa eta gero gurasoekin gozatzeko.

Programazio zabal eta anitz duzu prestatuta, ez galdu aukera! Ttakunetik pasa eta igo zaitez ikaztegieta edota Altzora doan autobusera! •